

Ingurumen Buletina

- 1. ELAren ekarpenak Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plangintza berriari (PIGRN 2025)***
- 2. Hondakinen kudeaketaren pribatizazioa Gipuzkoan***
- 3. COP21ean negoziatu zen Parisko Akordioa ofizialki sinatu da***
- 4. Break Free: energia fosilei aurre egiteko kanpaina ELAn***

1. ELAren ekarpenak Nafarroako

Hondakinen Kudeaketa Plangintza berriari

(PIGRN 2025)

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plangintzaren borradorea publikatu du, PIGRN 2025 deiturikoa. Bertan egin da egungo hondakinen kudeaketaren diagnostia, etorkizuneko helburuen ezarpena eta eraikiko diren azpiegituren deskribapena. ELAk Planaren ondorengo balorazioa egiten du:

Gaur egungo egoera kezagarria da. 2014an 262.602 tona hiri hondakin sortu ziren Nafarroan. 2010etik %6 murriztu da sortutako hondakin kopurua baina 2020rako murrizketa helburua %10ekoa, beraz, oraindik lan handia dago egiteko herritarron kontzientziazioan eta beste neurri mota batzuetan. Are gehiago murrizketa hau batez ere jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondorioz soilik eman dela jakinik. Ondoren hondakinen kudeaketako arlo ezberdinak baloratuko ditugu:

Hondakinen bilketa selektiboa

2014an hiri hondakinen %38 soilik biltzen zen selektiboki, gainontzeko %62 nahasita biltzen zen, nahastutako hondakinen berrerabilpen eta birziklatze

tratamenduak zailagoak izanik. Hondakinen kudeaketa iraunkor eta eraginkor bat aurrera eramateko erronka nagusia nahasian jasotzen den errefusa selektiboki biltzea da. Nafarroan errefusa bezala jasotzen den %62 portzentaje altu horretatik zati handi batek zabortegean bukatzen du.

Hondakin organikoen %19 soilik jasotzen zen selektiboki, 2020rako helburua organikoaren %50 selektiboki biltzea denean, eta 2025erako %70 da helburua. Atal honetan PIGRNak Nafarroa osoan hondakin organikoen %100 selektiboki biltzea jartzen du helburutzat, bat gatoz helburu honekin, oso garrantzitsua baita hondakinak jatorrian bereiztuta biltzea ondoren %100 birziklatzera iritsi ahal izateko. Baina helburu hau betetzeko planteatzen den bilketa selektibo ereduak kezkatzen gaitu, organikoa biltzeko 5.edukiontzia jartzea baita asmoa. Eredu honek ez du jatorrian bereiztera behartzen, eskualde batzuetan jada atez ateko bilketak edo autokonpostaje eredu ezberdinek derrigortzen duten bezala. ELAk hondakinen bereizketa jatorrian egiteko derrigortasuna ezartzea exijitzen du, hau baita hondakinen kudeaketa errazagoa, merkeagoa eta iraunkortasunez egiteko bidea. Derrigortasuna ezinbestekoa da %80tik

gorako birziklapen tasak lortzeko, kasu batzuetan %90era iritsiz.

Birziklapena

2014an birziklapen tasa %32koa zen, Europak 2020rako %50 eta 2030erako %70 eskatzen duen bitartean. Nafarroa helburua lortzetik urrun dago. PIGRNak birziklapen helburu anbiziotsuak ezartzen ditu: 2020rako hondakin organikoen %70 eta 2025erako ontzien %90. Helburu onargarriak dira, baina hauek betetzeko bilketa selektiboan eta hondakinen tratamenduan hobekuntza handiak eman behar dira.

Selektiboki bildutako hondakin organikoaren tratamendua

Ados gaude PIGRNak konpostajea selektiboki bildutako hondakin organikoentzat tratamendu egokiena dela esaten duenean. Baina konpostaje planta bakarra izateak (Carcar) hondakin hauen tratamenduaren egoera oso eskasa dela erakusten du. Badira biometanizazio tratamenduak Carcarren bertan, HTNn eta Biomendin (azken bi hauek gestio pribatukoak), baina tratamendu honek askoz errefusa gehiago sortzen du konpostajeak baino. Gainera, hondakinen kudeaketa publikoa izatea exijitu behar da, beraz, asko dago egiteko oraindik hondakin organikoen

tratamenduari dagokionez. Etorkizun hurbilean erantzun beharreko erronka selektiboki bildutako hondakin organiko kopuruaren eta honen tratamendu beharraren hazkundera da, 2014an jasotako 25.500 tonak 2025ean 82.000 tona izango direla aurreikusten baita.

PIGRNak konpostaje planta berriak sortzea planteatzen du modu deszentralizatu batean Arbizun, Donezteben eta Zangotzan, bakoitzak urtean 3.000 tona hondakin organiko tratatzeko ahalmenarekin; eta beste konpostaje planta bat Iruñean urtean 50.000 tonako ahalmenarekin. Gainera Tuterako tratamendu mekaniko biologikorako (TMB) planta biometanizazio planta izatera pasako da, urtean 22.000 tonako ahalmenarekin, nahiz eta honek errefusa gehiago sortuko duen konpostaje plantek baino. Landa zonaldeetarako autokonpostaje eredu bultzatuko da. Nafarroako konpostaje ahalmena tratamendu planta publikoak eraikiz urteko 60.000 tonatan haztea positiboa da, baina hau hondakin organikoen bilketa selektibo eredu eraginkor batek osatu behar du, eta horretarako ezinbestekoa da hondakinak jatorrian bereizteko derrigortasuna.

Errefusaren tratamendua

Nafarroan 2014an hondakinen %62 errefusaren edukiontzian nahastuta bildu ziren eta hondakinen %37 bidali ziren zabortegira inongo tratamendurik gabe. Tuteran bada tratamendu mekaniko biologikorako (TMB) planta bat urtean 50.000 tona errefusa tratatzeko ahalmenarekin, baina jasotzen duen hondakin kopurua duen ahalmenaren gainera dago. Jasotzen dituen hondakinen %64a organikoa da, baina %25 soilik errekuperatzen du. Beraz, TMB planta ez da errefusaren kudeaketa iraunkorrerako tratamendu eraginkor bat.

Errefusari dagokionez, legez bete beharreko helburuak anitzak dira. Alde batetik, errefusaren %100 tratatu beharko da 2020tik aurrera. Zabortegira eramandako hondakin organikoak %5a besterik ez dira izango. Ezingo da zabortegira birziklatu daitekeen hondakin eraman. Ezingo da hiri hondakinen %10a baino gehiago energetikoki balorizatu. Eta ezingo da hondakin kopuru osoaren %15a baino behiago zabortegira eraman.

PIGRNak TMBa hobesten du errefusarentzat tratamendu gisa. Tuterako TMB planta biometanizazio planta bihurtu eta Iruñean TMB planta berri bat eraikitzea

planteatzen du, azken hau urteko 90.000 tonako ahalmenarekin. Modu honetan, errefusarekin nahastuta jasotzen diren hondakin organikoak estabilizatuko ditu eta gainerakoarekin hondakinetatik eratorririko erregaia (CDR) lortuko du. Plangintzak behin eta berriro azpimarratzen du CDR horri energetikoki balorizatuz irteera bermatu behar zaiola hondakinen koinzinerazioko instalazioetan. Argi geratzen da beraz PIGRNak koinzinerazioa hobesten duela errefusaren tratamendu bezala. Birziklatu ezin direnak eta CDRa ekoizteko balio ez dutenak, zabortegira joango lirateke. ELAk ez du onartzen errausketarik hondakinen kudeaketan, koinzinerazio edo balorizazio energetiko izenaz ere ez. Errausketari alternatiba izan behar dira ahalik eta berrerabilpen eta birziklapen tasa altuenak. %80ko birziklapen helburu altuak lortu eta errefusa gutxiago sortzeko, hondakin eta material mota guztiak jatorrian bereizteko derrigortasuna da gakoa.

Zabortegiak

Gaur egun hiru zabortegi daude: Carcar Montejurran, Erribera Tuteran eta Gongora Iruñean. Hiri hondakinen %58ak zabortegian bukatzen du. Zabortegietan jasotzen diren hondakinen %64a tratatu gabe

zuzenean isuritakoa da. Tratamendu gabe isuritako hondakin hauen %49 hondakin organikoak dira. Erribera eta Carcar zabortegiak betetzeko zorian daude eta epe labur edo ertainera itxi beharko dira.

Europako legediak zabortegietan ezarririko helburuak oso zorrotzak dira. 2020tik aurrera zabortegira doazen hondakinen %100 tratatu beharko da, ezingo da birziklatu daitekeen hondakin isuri eta hiri hondakin kopuru osoaren %15 gehienez isuri ahalko da zabortegian. Gaur egun Nafarroan dagoen egoera helburu hauek betetzetik oso urrun dago. Lortzeko bide bakarra neurri urgente eta zorrotzak hartzea da. Batez ere bilketa selektiboan, hondakinen %100 modu eraginkor eta iraunkorrean tratatu ahal izateko eta horrela zabortegira ahalik eta hondakin kopuru baxuena eramateko, beti ere birziklatu ezin den hondakina izanik eta aurretik tratatua.

PIGRNak Erribera eta Carcar zabortegiak istea proposatzen du eta Gongoraren ahalmena handitzea. 2025erako zabortegira doazen hondakin guztiak Iruñeako TMB berrian tratatuko direla aurreikusten da, sortutako hiri hondakin guztien %15a joango dela gehienez zabortegira eta beste %10 balorizazio

energetikora bideratuko dela.

Plangintza honetan aukeraturiko alternatibak ez dira egokienak errefusa gutxitu eta tratatzeko, eta ondorioz ezta zabortegien erabilera %15era mugatzeko ere. Koinzinerazioa errefusarentzat tratamendurik okerrena da. Jatorrian bereiztu, aurretik tratatu eta birziklatu ezin diren hondakinak estabilizatu eta zabortegira eramatea baino askoz okerragoa da errausketa.

ELarentzat lehentasuna da ekonomikoki, sozialki eta ingurumen ikuspuntutik eraginkorra eta arduratsua den hondakinen kudeaketaren alde apustu egingo duen sistema bat. Klima aldaketari aurre egiteko estrategikoa den sektore batean tokiko eta kalitatezko enplegu berdea sortuko duen sistema bat. Ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala egiteko ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzen dituen sistema bat. Gutxi batzuen interes ekonomikoen gainetik egongo den sistema bat.

2. Hondakinen kudeaketaren pribatizazioa **Gipuzkoan**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GHKK Zubietan eraiki nahi duten hondakinen

tratamendurako zentroaren inguruan eginiko adierazpenen harira, ELA sindikatuak honako balorazioa egiten du:

- Lehenik eta behin informazio falta salatu nahi du. Azken hilabeteetan erraustegi berriari dagokion informazioaren berri prentsa agerraldi bidez jasotzen ari gara, baina ez dago inolako dokumentu ofizialik honen inguruan. Ez abenduan erraustegiaren dimentsioen inguruan eginiko adierazpenetatik informazio zehatza ateratzeko, ez eta orain hondakinen tratamendu zentroaren gestio eredua azaltzeko egin dituzten adierazpenak informazio objektiboz osatzeko ere.

- Agerraldi hauetan informazio eman baino balorazioak egiten dituzte Foru Aldundiko arduradunek. Esaterako, proposatutako zentroa jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumen irizpideei jarraiki eginiko proiektua dela esanez, inongo jasangarritasun txostenik erakutsi gabe. Edo Europar Batasuneko helburuekin eta ekonomia zirkularraren printzipioekin bat datorrela esaten dutenean, oraindik hurrengo urteetarako hondakinen sorrera, berrerabilera eta birziklapen helburuak zeintzuk diren zehaztuko duen hondakin planik ez dugunean.

- Era berean, hurrengo urteetarako plangintza hau izan behar da lehen pausua diagnostiko egin eta hurrengo urteetarako behar eta helburuak finkatuko dituen, eta datu horietan oinarrituz egin behar da azpiegituren plangintza, eta ez alderantziz, orain egin den moduan: lehenik azpiegitura motak eta hauen dimentsioak zehaztu dira diagnostikoa eta helburuak ezagutu aurretik.

- Zubietako hondakinen tratamendurako zentroak planteatzen ari diren azpiegiturei dagokionez, ELAk bi puntu azpimarratu nahi ditu. Batetik, gauza bakoitzari bere izenez deitu behar zaiola, hau da, energia balioztatzeko planta bat esaten dutenean erraustegiaz ari direla argitu behar da. Eta bestetik, biometanizazio planta ez dela hondakin organikoa tratatzeko modurik egokiena, askoz eraginkorragoa da konpostaje zentro bat. Bigarren honetatik ateratzen den konpostaren kalitatea askoz ere altuagoa da, baina horretarako hondakin organikoak modu selektiboan jaso behar dira eta badirudi plangintza honetan derrigorrezko bilketa selektiboa alde batera utziko dela, dena nahastuta jaso eta ondoren tratatzea hobetsiz. Ondorio honetara iritsi gara tratamendu mota ikusita, ez baitugu informaziorik hondakinen bilketa sistema

nolakoa izango den, aipatu bezala oraindik hurrengo urteetarako plangintza ez baita ezagutzen.

- Kudeaketa ereduari dagokionez, kudeaketa publiko-privatuaren formulak zerbitzuaren pribatizazioa suposatzeaz gain, askoz ere garestiagoa izango da. Nahiz eta orain Foru Aldundiak ez dituen 200 milioi bideratuko zentro honen eraikuntzara, hurrengo 30-35 urteetan ordainduko den kantitatea askoz ere altuagoa izango da, eraikuntza eta kudeaketa kostuari enpresa pribatuaren irabaziak gehitu beharko baitzaizkio. Oraindik ez dira ezagutzera eman lizitaziorako eta urteroko kuotak zehazteko irizpiderik baina kudeaketa eredu hau beste azpiegitura batzuetan ere ematen da, esaterako autopista batzuen kudeaketan, eta dagoeneko jakina da zuzeneko gestio publikoa baino askoz garestiagoa ateratzen dela.

- Aurreko Foru Gobernuak Zubietan egin nahi zuen hondakinen tratamendu zentroak ez zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurumen Baimen Bateraturik (IBB) jaso, erabaki hura zalantzas beteak izan zen arren. Orain planteatzen ari diren zentroak berriz baimena eskuratu du, modu azkarrean gainera eta askoz kutsagarriagoak diren

azpiegiturak izanik. Baimen hau eman bada, txostena publikoa izan behar da eta hau ere herritarroi falta zaigu.

- ELAk urteak daramatza hondakinen kudeaketa eredu iraunkorrenak defendatzen eta orain ere horrela jarraituko dugu. Horregatik eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari erraustegia alde batera utzi eta aurretik eman diren aurrerapausoetan atzera ez egiteko. Gure etorkizuna, ingurumena eta osasuna baldintzatu ez dituen hondakinen kudeaketa eredu iraunkor bat posible delako, eta ez delako hain zuzen beraiek bultzatzen dutena. Bestalde, eta informazio eta gardentasun falta larriak ikusirik, ELAk Gipuzkoako Foru Aldundiari exijitzen dio informazio guzti hau publiko egin dezala, gipuzkoarron eskubidea baita egoeraren berri izatea, eta bide batez, erabaki hauetan parte hartzea.

3. COP21ean negoziatu zen Parisko Akordioa ofizialki sinatu da

Apirilak 22, Lurraren nazioarteko eguna, egun aproposa aurrekaririk ez duen klima aldaketaren aurkako akordioa sinatzeko. Horrela izango balitz behintzat. Baina 2015eko abenduan COP21ean negoziatu zen akordioa, ez da NBERen

antzerki guztiarekin New Yorketik saldu nahi digutena. Ez da berotegi efektuko gasak murriztuz klima aldaketatik planeta salbatuko duen akordioa. Herrialde sinatzaile gehien izango dituen akordioa izango da baina ez du inongo edukirik. Akordio honek jasotzen duen gauza bakarra, abenduan jada salatu genuen, Estatuak konpromisoak hartu behar dituztela da. Konpromisoak emisioak murrizteko eta horretarako baliabiderik ez duten herrialdeei laguntzeko, baita dagoeneko klima aldaketaren ondorioak sufritzen dituztenei, eta etorkizunean areagotuko diren ondorioei aurre egiteko ere. Baina ez dago inongo konpromiso loteslerik ez emisio murrizketan, ez finantziazioan ez eta beste inolako neurrietan ere. Konpromiso hauek Estatu bakoitzak jakinaraziko ditu 2016an zehar.

Benetako bidea ez da Parisko akordio hutsa. ELAk sistema aldatzeko beharra, ez klima, azpimarratzen du:

- Batetik, tokian tokiko alternatibak sortu eta garatzea, eskualde mailakoak, lehengaien eta pertsonen mugikortasuna eta energia beharrak murriztuko dituztenak, eta benetan bizitza iraunkorrago bat eraikitzeko behar ditugunak. Alternatiben Herrian ikusi genuen jada errealitatea direla. ELAk ere baditu

alternatibak, gure proposamena enplegu berdeena da, kalitatezko enplegua eta klima aldaketa murrizteko eraginkorra.

- Era berean, neurri zehatz eta urgenteak hartu behar dira administrazio publikoetatik maila ezberdinetan, hain garrantzitsuak diren energia, garraioa edo elikadura burujabetza bezalako arloetan.

- Eta noski mobilizatzen jarraitzea, hori baita bidearen beste ardatza. Ez dugu gure aldarrikapenetan etsiko, gobernuari eta enpresa handiei presio egiten jarraituko dugu, benetan beharrezkoak diren politikak egin eta betearazteko.

4. Break Free: energia fosilei aurre egiteko kanpaina ELAn

Maiatzaren 7tik 15era mundu mailan energia fosilen eta proiektu klimatiziden aurkako astea deitu da, *Break Free* izenez ezagunagoa. Mundu osoan zehar, maila lokalean eta globalean, jarduera ezberdinak antolatu dira: mobilizazioak, kanpainak, hitzaldiak,... ELAk ere parte hartuko du mobilizazio aste honetan maiatzaren 12an energia fosilen eta proiektu alternatiboen inguruko formakuntza eta mobilizazio saio bat antolatuz. Bertan izango dira Asbjörj Wahl ITF eta TUED sareko kidea sindikalismoa eta

klima aldaketaz hitz egiten, Pablo Cotarelo ekoizpenerako duten proiektua azaltzen.
zor energetikoaren inguruko auditoria
beharra aldarrikatzen eta Iparraldeko IENER
kooperatiba energia berriztagarrien